

IZAN KANTUZ

BAIETZ 26 ORDUZ JARRAIAN EUSKARAZ ABESTU ZALDIBIAN!

HERRI ERRONKAREN GIDA ETA PARTE HARTZEAREN NONDIK NORAKOAK

Gida honetan zehazten dira errekorra jasoa izan dadin herri erronka gauzatzeko adostu diren arauak.

NOIZ eta NON GAUZATUKO DA ERREKORRA?

- 2017ko azaroaren 10eko arratsaldeko 18:00etan hasiko da, eta 26 ordu geroago, 2017ko azaroaren 11ko arratsaldeko 20:00etan amaituko da erronka Zaldibiako Herri Antzokian.

PARTE HARTZEKO IRIZPIDEAK/BALDINTZAK:

- **Abestiak karaoke formatuan abestuko dira.** Horretarako aukeratzen diren abestiak, karaoke formatura egokituko dira aurrez; beraz, abeslariak letra aurrean izango du abesterakoan.
- **Aurrez eta eskura duzuen zerrendatik aukeratu** beharko dira abestiak. Abesti bakoitza zenbaki baten bidez izendatuko da. Zerrenda osoa <http://www.zaldibia.org/izankantuz> helbidean duzue eskuragarri.
- **Gehienez hiru pertsonak batera** abestu ahal izango dute oholztan. Gainera, gutxienez batek zaldibitarra izan behar du. (Beharrezkoa izanez gero, dinamizatzaileak sartuko dira taldeetan abestera)
- **Aurrez izena eman beharko da.** Dena behar bezala koordinatzeko, aukeratutako abestia, izen-abizenak, telefono mugikor zenbakia eta helbide elektronikoa eskatuko zaizkio parte hartzaileari.
- Antolakuntzak egitarau moduko bati jarraituko dionez, **aurrez zehazturik egongo da abestien ordutegia** (kasu batzuetan parte hartzaileak aukeratu lezake noiz abestu). Hori guztia izena ematerakoan zehaztuko da. Baliteke aldaketak izatea ordutegian, antolakuntza arazoak direla eta. Egokitutako ordua baino ordu erdi lehenago bertan egon beharko du parte hartzaileak, eta 15 minutu lehenago ilaran jarri beharko du.
- **Abestiak ezingo dira erreplikatu;** bertsio ezberdinen kasuan ere, lehenabizi aukeratutakoa lehenetsiko da. Salbuespen bat egingo dugu abeslari gonbidatuekin; aurrez edo ondoren erreplikatu balira ere, euren abestien artean mugarik gabe aukeratu ahal izango dute.
- **Oroigarri gisa,** paparrerako ikur bat (txapa bat) oparituko zaio oholztatik igarotzen den orori.
- **ZUZENKO EMISIOA 26 ORDUZ** Zaldibiako Herri Antzokitik mundu osora, Internet bidez, streaming eginez. Erronka osoan zehar parte hartzen duten guztien irudiak hartu, eta, ondoren, www.zaldibia.org atarian plazaratuko ditugu.
- **Zerbitzu karpa kokatuko dugu antzokiaren kanpoaldean.** Han, freskagarriak, janaria eta bestelako zerbitzuak eskainiko dira erronkak dirauen bitartean. Handik, zuzenean jarraitu ahalko da erronka telebista pantailen bidez. Erronkak dirauen bitartean, Zaldibiako Herri Antzokian ezingo da edan, jan edo erre.
- Parte hartzaile orok hartutako konpromisoa betetzeko moduan egon beharko du. Norbait abesteko moduan ez badago, oholztan egongo diren dinamizatzaileek eskumena izango dute hura kanporatzea.



OFFICIAL WORLD RECORD-EK ZIURTATUTAKO MUNDUKO ERREKORRA:

- [OFFICIAL WORD RECORD](#) elkarteak ziurtatuko du 26 orduz euskaraz abesten jardungo dugula.
- Euskal Herriko zenbait elkartetako kideek osaturiko batzorde batek ere ziurtatuko du erronkaren garapena.

ABESLARI GONBIDATUAK

- Zer litzateke IZAN KANTUZ abeslaririk gabe? Gure kantagintzaren ardatz izan diren eta izango diren abeslariak ere parte hartzeko aukera izango dute.

8 DINAMIZATZAILEAK

- Zortzi herritarrek IZAN KANTUZ erronkari aurre egiteko konpromisoa hartu dute.
- IZAN KANTUZ erronkaren bihotz taupadak bermatzea izango da herritar horien dinamizazio lana.
- Abesterakoan alboan izango dituzu; zalantzak argitzeko, beldurrak uxatzeko eta lotsak astintzeko gai izango dira.
- Herritarren dinamizatzaile eta IZAN KANTUZ erronka osatzeko akuilu izango da zortzikotea.

PARTE HARTZEKO PAUSOAK

- **Irailean hasita, ostiralero, Zaldibiako plazan informazio mahaia** jarriko dugu. Zalantzak argitu, abestia aukeratu eta izena eman dezakezu.
- Abestia aukeratu; <http://www.zaldibia.org/izankantuz> helbidean aurkituko duzu zerrenda.
- Behin aukera eginda, abestiak duen zenbakia, zure izen-abizenak eta telefono zenbakia izankantuz@gmail.com helbidera bidali ditzakezu. Dinamizatzaileak jarriko dira zurekin harremanetan, eta parte hartze ordua konfirmatuko dizugu.
- Abestiak entzun edo karaokean trebatu nahi baduzu, www.txantxangorria.eus helbidean duzu aukera amaigabea.

IZAN KANTUZ ERRONKARI LAGUNTZEKO

- Ekimena finantzatzeko, hainbat ekimen ditugu abian:
 - Batetik, Zaldibiako taberna, saltoki eta zerbitzu ezberdinak eskaintzen dituzten enpresa nahiz pertsonak dohaintzan emandako produktu eta zerbitzuei esker, ZOZKETA bat jarri dugu abian.
 - Bestetik, hainbat lantegietan ere laguntza eskaerak egin ditugu.
 - Azkenik, IZAN KANTUZ erronkaren kamisetak jarriko ditugu salgai 10 €-ren truke.

IZAN KANTUZ ERRONKAREN JARRAIPENA

- Ekimen herrikoi honek jarraipena izatea gustatuko litzaiguke. Horregatik, IZAN KANTUZ ekimenaren jatorrizko ikurra, Santi Ormaetxea zaldibiarrak harrian egindakoa, erronkari heltzen dion hurrengo herriaren esku utziko dugu gurea amaitzean.



Zaldibian, 2017ko irailean.